

Aldatu Euskaltelera 2024/02/28a baino lehen, eta baliatu sustapen hauek.

### **Zuntza, Mugikorra eta TBa**

300 Mb-eko zuntza, finkoa, Aisia TB eta bi mugikor-linea dei eta GB mugagabeekin, 59 €/hil (behin betiko prezioa).

Pakete hau kontratatuta Euskaltelera aldatzen diren bezero berriek Netflix HD, Prime eta/edo Guztia TB eta/edo Funtsezko DAZN edo Guztia DAZN izango dituzte paketearen prezioan sartuta lehenengo 3 fakturretan (aktibazio-hilabeteari dagokiona eta beste bi). Lehen hilabeteko deskontua hainbanatu egiten da aktibazio-dataren arabera. Laugarren fakturatik aurrera, hau ordaindu beharko duzu:

- Netflix HD aukeratzen baduzu, 10 € gehiago izango da hilean.
- Prime aukeratzen baduzu, 4 € gehiago hilean. Amazon.com, Inc. eta haren afiliatuak ez dira sustapen honen babesleak. Amazon, Prime eta haien logotipo guztiak Amazon.com Inc.-en edo sozietate afiliatuen marka komertzialak dira. Primeren salmenta-prezioa 4,99 € da. Primeko harpidetza bertan behera utz dezakezu Euskaltelen aplikazioaren bidez.
- Guztia TB aukeratzen baduzu, 6 € gehiago izango da hilean.
- Funtsezko DAZN aukeratzen baduzu, 18,99 € gehiago izango da hilean.
- Guztia DAZN aukeratzen baduzu, 29,99 € gehiago izango da hilean.

Hiru hilabete oso eta segidan irauteko konpromisoa. Epe horren aurretik ematen baduzu baja, 229,9 € ordaindu beharko dituzu instalazioaren kostuagatik (BEZa barne, ezin da hainbanatu).

### **Zuntza + Mugikorra 10 GB-arekin**

300 Mb-eko zuntza, finkoa eta bi mugikor-linea dei mugagabeekin eta 10 GB-ekin, 39 €/hil (behin betiko prezioa). 3 hilabete irauteko konpromisoa. Epe horren aurretik ematen baduzu baja, 229,9 € ordaindu beharko dituzu instalazioaren kostuagatik (BEZa barne, ezin da hainbanatu).

### **Zuntza + Mugikorra 30 GB-rekin**

300 Mb-eko zuntza, finkoa eta bi mugikor-linea dei mugagabeekin eta 10 GB-rekin, 49 €/hil, azken prezioa. 3 hilabete irauteko konpromisoa. Epe horren aurretik ematen baduzu baja, 229,9 € ordaindu beharko dituzu instalazioaren kostuagatik (BEZa barne, ezin da hainbanatu).

### **Linea gehigarriak**

Zuntza eta mugikorra barne hartzen dituzten pakete guztietan, bigarren mugikorraren prezioa 0 €/hil da (azken prezioa). Bigarren lineak nagusiak adina minutu eta giga izango ditu.

Linea gehiago behar badituzu, 3 linea gehigarri kontrata ditzakezu hilean 3 € ordainduta lehenengo 12 fakturretan (aktibazio-hilabeteari dagokiona eta hurrengo hamaikak). Lehen hilabeteke deskontua hainbanatu egiten da aktibazio-dataren arabera. Sustapenaren ondoren, linea horien prezioa indarrean dagoen tarifa bateratuari dagokiona izango da (Mugagabeak + 5 GB-ko tarifa, 5 €/hil; Mugagabeak + 10 GB-ko tarifa, 9 €/hil; Mugagabeak + 30 GB-ko tarifa, 11 €/hil; dei eta GB mugagabeak, 16 €/hil).

Eramangarritasunetarako bakarrik daude eskuragarri sustapen hauek.

### **Probatu 1 Gb-eko zuntza**

300 megako paketeetan, baliatu etxean 1 Gb-eko abiadura, 300 megaren prezioan, lehen hiru fakturretan (aktibazio-hilabeteari dagokiona eta hurrengo biak). Lehen hilabeteke deskontua hainbanatu egiten da aktibazio-dataren arabera. Laugarren fakturatik aurrera, 1 Gb-eko abiadura gelditzea erabakitzen baduzu, prezioa hilean 10 € gehiago izango da.

### **Zuntza eta Finkoa**

1 Gb-eko zuntza eta telefono finkoa aukeran: hilean 29 € ordainduta lehenengo 12 fakturretan (aktibazio-hilabeteari dagokiona eta hurrengo hamaikak). Lehen hilabeteke deskontua hainbanatu egiten da aktibazio-dataren arabera. Gero, 44 €/hil. 12 hilabete irauteko konpromisoa. Epe horren

aurretik ematen baduzu baja, 229,9 € ordaindu beharko dituzu instalazioaren kostuagatik (BEZa barne, ezin da hainbanatu).

### **WiFi Mesh**

WiFi Mesh-ekin, alokairuko wifi-anplifikadore adimendun bat izango duzu, hilean 4 € ordainduta. Zuntza, mugikorra eta telebista dituzten bezeroek % 100eko deskontua dute kuota horretan. 15 €-ko alta-kuota bat du lehen hilean (behin bakarrik ordaintzekoa). Sustapenaren baldintzak betetzeari utziz gero, ez da deskontua aplikatuko. Zerbitzuan baja emanez gero, ekipamendua itzuli behar da.

### **Telefonia finkoaren tarifa finkoa.**

Telefono finkoaren tarifa finkoan sartuta daude edozein ordutegitan estatuko finkoetara deitzeko 4.000 minutu. Finkotik mugikorretara deitu behar baduzu, mugikorretara deitzeko plana kontratatu dezakezu; 2 €/hil ordainduta, 4.000 minutu izango dituzu finkotik mugikorretara deitzeko.

### **Mugikor-tarifak**

Mugikor-tarifekin, estatuko edo EBko roamingeko edozein mugikor edo finkotara dei dezakezu, edozein ordutan. Erabilera egokiko politika dela eta, minutu-mugarik gabeko tarifek 7.000 minutuko muga dute hilean. Behin minutu-muga hori gaindituta, tarifaz kanpoko dei gisa eta minutu-bonu gisa kobratuko dira deiak, hau da, 40 zent./min kobratuko dira, eta beste 40 zentimo dei-ezarpena tarifa finko guztietan (BEZa barne). Tarifa gehigarriko zerbitzuetara egiten diren deiak, EBtik kanpoko roamingekoak, nazioartekoak, datu-konexioak, SMSak/MMSak eta Premium mezuak indarrean dauden tarifen arabera kobratuko dira.

### **Roaminga**

Atzerrira joatekoa zara? Zure mugikor-tarifan roamingeko zer eremu sartzen diren jakiteko, ikusi [www.euskaltel.com/roaming](http://www.euskaltel.com/roaming).

Europar Batasuneko roamingeko datuen trafikorako zentuzko erabileraren politikaren arabera, 1. eremuan —EB eremuan— erabilera-muga bat ezartzen

du Europar Batasuneko roamingaren erregulazioak, eta ezin da gainditu. Muga hori, gutxienez, kontratatutako tarifaren prezioa (BEZik gabe) handizkako prezioarekin (1,8 €/GB) zatitzean lortzen den datu-bolumena halako bi izango da. Adibidez: tarifa mugagabearen roamingeko muga 30 GB da, 30 GB-ko tarifarena 15 GB, eta 10 GBko tarifarena 9 GB.

Lau hilabetez jarraian zure roamingeko dei- eta datu-kontsumoa estatukoa baino handiagoa bada, oharra bidaliko dizugu esanez roamingeko kontsumoengatik errekaratu bat aplikatuko dizugula bi astean kontsumo-eredua aldatzen ez baduzu. Nolanahi ere, estatuko tarifaren eta ezarritako errekaratuaren batura ezin izango da minutuko 0,2290 € eta erabilitako megabyteko 0,2420 € baino handiagoa (BEZa barne).

### **K-laguntza**

K-Laguntza zerbitzua sartuta dago paketeetan. Zerbitzu hau erabat doan izango da lehenengo fakturan, aktibazio-hilabetekoan; ondoren, 5 €/hil izango da.

### **Instalazioa**

Zuntz-zerbitzua doan instalatuko dizugu, gutxienez iraupen-konpromisoan adierazitako hilabete-kopurua egiten baduzu gurekin. Epe horren aurretik ematen baduzu baja, 229,9 € ordaindu beharko dituzu instalazioaren kostuagatik (BEZa barne, ezin da hainbanatu). Iraupen-konpromisoa instalazioa egiten den egunean hasten da aplikatzen.

### **Telebista-zerbitzua**

Agile TV telebista-zerbitzua Over The Top Networks Ibérica SLUK ematen du (aurrerantzean Agile TV; IFZa: B-86588639; helbidea: On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 45, 48011 Bilbo). Telebista-zerbitzua Euskaltelek fakturatuko dizu, telekomunikazio-zerbitzuen fakturan. Telebista-zerbitzua jasotzeko behar den ekipamendua Euskaltelena da, eta alokatu edo utzi egingo dio bezeroari. Agile TVren TB-zerbitzua kontratatuzko baldintza orokorrak [www.agile-tv.es](http://www.agile-tv.es) webgunean kontsultatu ditzakezu. Posta arruntez ere jaso ahal izango dituzu, eskatuz gero.



Sustapen hauek kontratatuta, berariaz eskatzen duzu faktura formatu elektronikoa jasotzea. Sustapenari eusteko, faktura elektronikoa jasotzen jarraitu beharko duzu sustapena indarrean den bitartean.

Prezioek sartua dute BEZa (egungo tarifen arabera), eta eguneratu ahal izango dira.

Lehendik bezeroa bazara, 2024/02/28ra arte izango dituzu eskura sustapen hauek:

### **Zuntzeko, mugikorreko eta TBko bezeroak**

Lehenengo 3 fakturretan (aktibazio-hilabeteari dagokiona eta beste bi) hilean 0 € ordainduta Prime kontratatzen duten zuntzeko bezeroentzako sustapena. Laugarren fakturatik aurrera, Primeren kostua 4,99 €/hil izango da. 12 hilabete irauteko konpromisoa. Epe horren aurretik ematen baduzu baja, 15 € ordaindu beharko dituzu (BEZa barne, ezin da hainbanatu). Amazon.com, Inc. eta haren afiliatuak ez dira sustapen honen babesleak. Amazon, Prime eta haien logotipo guztiak Amazon.com Inc.-en edo sozietate afiliatuen marka komertzialak dira. Primeren salmenta-prezioa 4,99 € da. Primeko harpidetza bertan behera utz dezakezu Euskaltelen aplikazioaren bidez. Prezioek sartua dute BEZa, eta eguneratu ahal izango dira.

### **Zuntza bakarrik duten bezeroak**

Lehenengo 3 fakturretan (aktibazio-hilabeteari dagokiona eta beste bi) hilean 0,33 € ordainduta Prime kontratatzen duten zuntzeko bezeroentzako sustapena. Laugarren fakturatik aurrera, Primeren kostua 4,99 €/hil izango da. Amazon.com, Inc. eta haren afiliatuak ez dira sustapen honen babesleak. Amazon, Prime eta haien logotipo guztiak Amazon.com Inc.-en edo sozietate afiliatuen marka komertzialak dira. Primeren salmenta-prezioa 4,99 € da. Primeko harpidetza bertan behera utz dezakezu Euskaltelen aplikazioaren bidez. Prezioek sartua dute BEZa, eta eguneratu ahal izango dira.